BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2338

EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 15ekoa, Zerbitzu zuzendariarena, zeinaren bidez Ogasun eta Finantzetako sailburuari eskuordetzen baitzaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren menpeko administrazio-eraikinak goi- eta behe-tentsioko energia elektrikoz hornitzeko kontratazioa, 2015 eta 2016an (ERREF.: L-7947 ASS-BIZ).

Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio kudeaketa zuzeneko eraikinetan orokorrean erabili behar diren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzari egozten zaizkion gai eta zerbitzuak kontratatzea. Izan ere, halaxe dago ezarrita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. Kapituluan eta lehen xedapen gehigarrian eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren 12.d) artikuluan (2013ko apirilaren 18ko EHAA, 74. zk.).

192/2013 Dekretuaren 12.a) artikuluak ere zuzendaritza horri egozten dio era zentralizatuan eskuratu behar diren ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko prozedurak garatzea.

Gaur egun uste da zerbitzuen kudeaketa hobetzen eta gastu publikoa arrazionalizatzen laguntzen duela Baliabide Orokorren eskumenekoak diren eta modu zentralizatuan kudeatzen diren eraikinen, Ogasun eta Finantza Saileko gainerako eraikinen eta Eusko Jaurlaritzako gainerako sailetako eta haien erakunde autonomoetako eraikinen goi- eta behe-tentsioko energiaren hornidura modu zentralizatuan kontratatzeak.

136/1996 Dekretuaren 19. artikuluak ahalbidetzen du Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenak kudeaketa zentralizatua ez duten bestelako eraikinetara zabaltzea. Zabaltze hori honela gauzatzen da: hitzarmen bidez, administrazio-klausula zehatzen pleguetako aurreikuspen espezifikoen bidez, edo Herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak jasotzen dituen formulen bidez.

Aipatutako eremu hori energia elektrikoz hornitzeko kontratua modu zentralizatuan burutzeko formula egokia aurreikusita dago azaroaren 26ko 30/1992 Legean –Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio-prozedura Erkidearenean–, hain zuzen ere eskumenak eskuordetzeari buruzko 13.1 artikuluan. Honela xedatzen da hor:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

Hori dela-eta, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 5.2 artikuluak (2013ko apirilaren 24ko EHAA, 78. zk.) Zerbitzu zuzendariari ematen dizkion eskumenak baliatuz –horien artean dago sailaren kontratazio-organo izatea–, honako hau

EBAZTEN DUT:

I.– Ogasun eta Finantzetako sailburuaren esku uztea eranskinean adierazten diren eraikinak 2015 eta 2016an goi- eta behe-tentsioko energia elektrikoz hornitzeko kontratazioa egiteko eskumena.

Eskuordetzea Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak jasotzen dituen eta kontratuari ezartzeko diren gaietara zabalduko da.

● Kontratua prestatzea (II. Liburua).

● Kontratua esleitzea (III. Liburua, I. Titulua, I. Kapitulua).

● Administrazioaren eskumenak, aldaketa, iraungitze, lagatze eta azpikontrataziorako IV. Liburuko, I. Tituluko, I. Kapituluan oro har aurreikusten direnak, eta hornidura-kontratuetarako IV. Liburuko, II. Tituluko IV. Kapituluan berariaz aurreikusten direnak.

● Kontratua formalizatzea (III. Liburua, I. Titulua, I. Kapitulua).

II.– Eskumena ematen duen organoaren baitan jarraituko dute kontratazio-organoari dagozkion gainerako eskumenek, eta, bereziki, egindako zerbitzuen betetzeari onespena emateko eta euren ordainketa agintzeko eskumenek.

III.– Izenpetu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eskuordetzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 15a.

Zerbitzu zuzendaria,
IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA.

ERANSKINA

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren menpeko eraikinak goi-tentsioko energia elektrikoz hornitzea:

Helbidea	Herria	Lurraldea
Portua 23, behea 4	Getaria	Gipuzkoa